

ALFABETATZE BERANTIARRA (IBERIARTUAK ETA ZELTAPETUAK II)

Iberiarrek eta zeltek euskaldunengan izan bide zuten eragin ezin diferenteagoz jardun dugu gai honen lehen atalean, hipotesi horren bidez, harrespilen banakera ulertzeko bidea, eta euskalduntze berantiarraren auzia beste modu batean begiratzeko aukera luzatuz. Azken honi dagokionez, euskalduntze berantiarraren ordeztu, alfabetatze berantiarra erabiltzea proposatuko nuke, gertatu bide zena modu trinko ulerterrazean laburbiltzeko, agian teknikoki doi-doi ez izan arren.

Gure eskumeneko inguru historikoan dagoen konkista eta asimilazio eredu hobekien dokumentatua mexikarra izango da segurua asko. Hernan Cortes-ek garaipen militarra burutu eta berehala, hortxe ikusiko ditugu mexikar jauntxoak, Moctezuma beraren seme-alabak barne, bataioa jasotzen, bere buruari izen espainiarrak jartzen, eta metropolira bidaiatzen, Enperadoreari erregutzeko, utz diezaien beren ondasun galdu berriak ustiatzen, horren zati bat nagusi berriari txintxo ematearen trukean eta haren zilegitasuna sekula zalantzan ez jartzeko zinpean. Mexikar noblezia Espainiara joaten da, bertan ezkontzen dira espainiar handikiekin, eta bertan jaioko dira ondorengo belaunaldiak ere, Erregeak emandako konderreri eta dukerriak Mexikon dituzten arren. Espainiarrek unibertsitateak sortzen dituzte eta bertako hizkuntzen gramatikak argitaratzen dituzte, baina prestigiozko su-loreak baino ez dira. Espainiarren handitasunaren erakusgarriak, ez bertako hizkuntzen goresgarriak, bertako eliteak ez baitira bertako hizkuntza zaharrez haziko, gaztelaniaren baitan baizik.

Egoera horrek hasiera ematen dio hizkuntzaren endekapen bideari, beste nonahi bezala. Handikiek bazter utzita, hori ikusten duten gero eta jende gehiagok ekingo dio bazter uzteari apurka-apurka. Prozesuak ordea luze jo dezake. Mexikarren kasuan zorionez, datuak ditugu egoeraren argizki doi bat osatzeko. Handikien lehen bataiatze eta izen espainiar ipintzetik, Mexikok bere independentzia lortu bitarte, 300 urte igarotzen dira, eta une horretan oraindik mexikarren %20k baino ez daki gaztelaniaz. Bertako hizkuntzak galtzeko hazia ereinda dago, patua saiheskaitza da, baina astia behar du burutzeko.

Hein berean irudika dezakegu gurean ere, hizkuntzari eusten dion mendebalde zeltapetua, euskara baztertu duten handikiekin, eta jende xumearen ahotan baino ez dabilenez, dotorezia eta prestigioa amiñika galtzen ari den hizkerarekin.

Historiak erakusten digu Erromatarrek zeltak menpean hartzen dituztenean, baskoiak lagun, hauek berreskuratu egiten dituztela zeltek ebatsitako hainbat eremu, Nafarroako Erriberan esate baterako. Hor irudika dezakegu baskoien eta euskararen prestigioaren gorakada, zeltenaren kaltetan. Baliteke euskara modan egotea garaiko mendebaldean ere, baina agian beranduegi da euskararen gizartetik erauzitako handiki zeltapetuak habiara itzultzeko hainbeste menderen ondoren, eta nagusia aldatu baino ez bide dute egiten, Erromatar izenak eta latina bere eginez. Artean ekialdean, etenik eta arrakalarik gabeko gizarte euskaldun osoa eta hizkuntza eredu jasoa ditugu, eta aparretan gainera, egoera politiko berria dela-eta.

Oinarri horretatik abiatuta iristen gara, bigarren zati honetan hizpide izango dugun gaia aipatzera, zeren, harrespilen banakera eta alfabetatze berantiarra ez ezik, goi-erdi aroko euskara batuaren auzia argitzeko ere balio baitezake.

Dakigunez, XVI mendeko literaturak erakusten du euskalkiak berdina zirela orduan, gaur egun direna baino, eta hortik ondorioztatzen dugu, astian atzera eginez, une batean euskara batu antzeko zerbait egon behar izan zela, goi-erdi aroan edo.

Filologoen hain garbi ikusten dutenari ordea ez zaio erraz aurkitzen argibide egokirik. Garbiketa etniko bat egon zela sinesteko, ehun bat Aldaieta beharko genituzke, eta bakarra dugu. Nafarroako Erresumaren gailentze politikoari lotu nahi izan zaio baita ere, eta noski, zeharkako nolabaiteko eragina egongo da, baina zoritxarrez badakigu Nafarroako erregeek ez zutela inoiz euskara erresumako hizkuntza ofizial ezarri. Zer aukera geratzen zaigu orduan? Nik Elizarena baino ez dut ikusten. Elizarena, eta hizkuntzaren aldetik zatituta dagoen Euskal Herriarena, bere ekialde normalizatu eta mendebalde diglosiapetuarekin.

Kristautasunaren mezua Baionatik eta Iruñetik hasten da zabaltzen eta euskaraz zabaltzen da. Akitaniak harreman estuak ditu aspaldidanik Baskoniarekin eta bietan formatzen dira Euskal Herri osoan kristau mezua zabalduko duten predikariak, Nafarroako Erresumaren hedatzearekin mendebalde euskalduneraino iritsiko direnak. Garaiko Baskonian, gaur egun ekialde bazterreko diren euskalkiak, jasoak ez ezik, zentralak ere badira, Pirinioetan urrun zabaltzen den euskararen mapan. Pentsa daiteke halaber, Elizaren lan pastoral horretarako, orduan, gaur egun bezala, hizkuntza-eredu bat sortu behar izan zela. Horrek guztiak irudika arazten digu, *ekialdera batu* baten oldea Baiona eta Iruñeko apezpikutzen baitako elizetan, erromatar garai berantiarretik hasi ahal izan zena eta gutxi gorabehera, XIII. mendean Gaztela muturra sartzen hasi arte iraungo duena. Zortzi mende badira nahiko, irudikatze, elizetako predikuan erabilitako ekialdeko euskara jaso, amiñika tokian tokiko euskalkiak blaitzeko.

Guztia laburbilduz, gaur egun ezagutzen ditugun hainbat datu historiko eta arkeologiko baliatuz, egoera bat irudika daiteke, harrespilen banakera, alfabetatze berantiarra eta goi-erdi aroko euskara batua argitzeko balio dezakeena. Noski, inork ez daki gauzak zehatz-mehatz modu horretan gertatu ote ziren, baina hainbat datuekin ondo ezkontzen da hipotesia, eta edozein hipotesiarekin gertatzen den bezala, datuekiko duen egokitasunaren arabera epaitu beharko da.